

Lau talde espainiar zein italiarrek Arriagatik Kurtag-era doan erreperitorioa jorratuko dute, Hamabostaldiaren Ganbera Musika Zikloan

- Lau kontzertuak abuztuaren 3tik 24ra bitartean izango dira San Telmo Museoko klaustroan, hirukotetik hari boskotera doazen taldeekin.
- Programazioak XVIII. mendetik XX. mendera bitarteko autoreak biltzen ditu, Juan Crisostomo Arriaga euskal konpositorearen presentzia nabarmenarekin, haren heriotzaren 200. urteurrenean.
- Sarrerak: quincenamusical.eus webgunean eta Kursaleko eta Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan.

Donostiako Musika Hamabostaldiak San Telmo Museoko klaustroan ganbera-musikari espazio zabala eskainiko dio **Ganbera Musika Zikloan**, Espainiako eta Italiako zirkuituetako talde nabarmenetako batzuk biltzen dituzten lau kontzertuko programazioarekin. **Abuztuaren 3tik 24ra**, XVIII. mendetik XX. mendera bitarteko ganbera-erreperitorioko erreferentziazko obretan zehar ibilbidea egingo da, eta arreta berezia jarriko zaio estilo, garai eta musika-hizkuntzen arteko kontrasteari.

Zikloa **abuztuaren 3an** hasiko da, **Francesca Dego, Alessandro Carbonare eta Alessandro Tavernaren** emanaldiarekin; nazioarteko ibilbidea duten hiru musikari italiar dira, eta XX. mendeko adierazpen-aniztasun handiko programa bat aurkeztuko dute, Menottiren *Trioaren* dotorezia lirikoa, Stravinskyren *Soldadu baten istorioaren* indar narratiboa, *Porgy and Bessen Baladen* unibertso herrikoa eta Bartóken *Kontrasteen* energia erritmikoa tartekatuz. Hurrengo egunean, **abuztuaren 4an**, **Trio VibrArt** hirukoteak lehen erromantizismo alemaniarren hiru zutabeetan oinarritutako programa interpretatuko du. Schuberten *Nocturnoaren* introspekzio delikatuaren eta Beethovenen *"Mamu" trio* ospetsuaren giro bereziaren ondoren, VibrArt-ek Mendelssohn-en *1. Trioaren* bertuosismo bikainarekin koroatuko du bere emanaldia. **Abuztuaren 9an La Ritirata** izango da, interpretazio historikoan espezializatutako euskal *ensemblea*; Boccherini eta Arriagaren arteko elkarriketa ardatz duen programa aurkeztuko du. Boccheriniren hainbat kinteto izango ditu, tartean *"Fandango"* kinteto ospetsua, Arriagaren 2. hari kuartetorekin batera, guztiak bilbotar konpositore jeinuzkoak lortu zuen heldutasun harrigarriaren erakusle. Azkenik, **abuztuaren 24an, Cuarteto Quiroga** laukoteak itxiko du zikloa, berriro ere Arriaga omenduta. Bere *1. eta 3. hari kuartetoak* interpretatuko dituzte, György Kurtágen piezekin kontrapuntuan; euskal konpositorearen gaztaroko eferbeszentziaren eta hungariararen idazkera kontzentratu eta zatikatuaren arteko elkarriketa liluragarria izango da; izan ere, gaur egungo sorkuntzaren izen handienetako batek 2026an 100 urte bete ditu.

Ganbera Musika Ziklorako **sarrerak**, 17 eta 19 euro arteko prezioan, **quincenamusical.eus** webgunean eta **Kursaleko eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke.

Hauek dira uda honetan Ganbera Musika Zikloa osatzen duten **4 hitzorduak**:

Francesca Dego/Alessandro Carbonare/Alessandro Taverna – Abuztuak 3, 20:30

Francesca Prego biolinista buru duten hiru musikari italiar bikainek melodiaren, kolorearen eta energia erritmikoen arteko elkarriketari buruzko lau begirada oso desberdin biltzen dituen programa eskainiko dute. Menottiren *Trio cantabile* izaeragatik eta lirismoaren eta bertuosismoaren arteko oreka sotilagatik nabarmentzen da; Stravinskyren *Soldadu baten istorioa* lanak antzerkigintza intzisiboa eta narrazio-pultsua eskaintzen ditu, ironia, dantza eta dramatismoa nahastuta; Gershwinen *Porgy and Bess Baladek* ganbera eremura eramaten dute haren operaren unibertso hunkigarria eta herrikoa; eta Bartóken *Kontrasteak* lanak bizitasun handiz itxiko du emanaldia, hungariar sustraiko erritmoetan eta instrumentu hain desberdinen (klarinetea, biolina eta pianoa) elkarrengatiko sortzen diren adierazpen-kontrasteetan oinarritua.

Francesca Dego biolinista italoestatubatuarra 1989an jaio zen Leccon, eta bere soinu beroa, interpretazio konprometituak eta teknika bikainagatik da ezaguna, azken urteetan violinista arranditsunetako bat bihurtuta. Deutsche Grammophonentzat grabatu ditu Paganiniren *24 Kapritxoak* eta Beethovenen biolinerako sonaten integrala, eta sarri jotzen du Europa, Amerika eta Asiako orkestra eta zuzendari garrantzitsuekin.

Alessandro Carbonare klarinetista italiarra, 1967an Desenzano del Gardan jaioa, Orchestre National de Franceko klarinetista nagusia izan da eta, 2003tik, Erromako Accademia Nazionale di Santa Cecilia orkestrakoa. Nazioarteko lehiaketa ugari irabazi ditu, bakarlari gisa jo du erreferentziazko orkestrekin, eta Accademia Santa Cecilia eta Accademia Chigianako ikastaroetan irakasle lanak egin ditu.

Alessandro Taverna veneziar pianistak bultzada erabakigarria eman zion bere nazioarteko ibilbideari, Minnesota, Londres, Leeds eta Busoniko lehiaketetan sariak lortu baitzituen. Harrezkero, Milango La Scala, Vienako Musikverein, Londresko Wigmore Hall eta New Yorkeko Lincoln Center agertokietan aritu da. Orkestra nabarmenekin kolaboratzen du eta kontzertu-jarduera Imolan, Paduan eta Portogruaron irakaskuntzarekin uztartzen du.

Trío VibrArt – Abuztuak 4, 20:30

Trío VibrArt hirukoteak lehen erromantizismo germaniarreko hiru maisu handiengan gelditzen den programa bat aurkeztuko du: Beethoven, Schubert eta Mendelssohnen lanak interpretatuko dituzte. Schuberten *Nocturno a mi bemol maiorrean 897 D.*, hirutar itxurako mugimendu liriko bakar gisa sortutako piezak melodia kantagarri eta nostalgiko bat hedatzen du, denboran ia zintzilik dirudien klima batean hedatzen dena. Beethovenen "Mamua" trio op. 70 pianodun hirukoterako sortutako erreperatorioko partitura ospetsuenetako bat da. Mugimendu kementsu batekin hasten da, eta amaiera argitsu batekin amaitu, baina Erdiko *Largo* da, atmosfera espektralduna, testura asaldatu eta harmonia tenkatukoa, bere goitizena inspiratu zuen mugimendua. Azkenik, VibrArt-ek Mendelssohnen *1. Trio op. 49* interpretatuko du formatu honetarako ganbera-musikaren funtsezko pieza; izan ere, XIX. mendean bere bultzada dramatikoaren, arnasa zabaleko melodien eta hiru instrumentuentzako idazkera bertuosistikoaren konbinazioarekin, pianodun trioaren generoa sendotu zuen ganbera-musikaren tresna kutunen gisa.

2015ean Berlinen sortua, **Trío VibrArt** hirukotea Juan Floristanek (pianoa), Miguel Colomek (biolina) eta Fernando Ariasek (biolontxelo) osatzen dute, pianodun triorako erreperatorioari modu konprometitu eta benetakoan ahotsa emateko. Reina Sofia Goi Mailako Musika Eskolan eta Berlinen ikasitakoak, beren ganbera-jardura bizia proiektu solistikoekin, pedagogikoekin eta orkestrakoekin uztartzen dute. Floristán, Santander eta Rubinstein goi lehiaketen irabazlea, Barenboim-Said Akademian da irakaslea; Colomek, Espainiako Orkestra Nazionaleko kontzertinoa izateaz gain, Sofia Erregina Eskolan eta Barenboim-Said Akademian irakasten du; Arias, Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioko katedraduna da eta Sofia Erregina Eskolako irakaslea. Euren erreperitorioa Mozartetik Lera Auerbacherraino iristen da, eta lehenbiziko diskoan Schubert eta Shostakovitxen lanak bildu zituzten. Hirukote bakarlari gisa aurkeztu dira hainbat orkestrekin batera, hala nola Espainiako Orkestra Nazionala, Orquesta Simfónica de Barcelona y Nacional de Catalunya, Sevillako Real Orquesta Sinfónica edo ADDA Simfónica Alicante, Madrilgo Musika Auditorio Nazionalean, Bartzelonako L'Auditori-n edo Sevillako Teatro de la Maestranza-n.

La Ritirata – Abuztuak 9, 20:30

La Ritirata, Hamabostaldiko Antzinako Musika Zikloan hainbestetan aritu dena, oraingoan Ganbera Musika Zikloan aurkeztuko da, Boccheriniren klasizismo italiar-espainiarraren eta Arriagaren heldutasun erromantiko goiztiarraren arteko elkarrizketa aztertzen duen programa batekin. *Si bemol maiorreko G. 337 kintetoak*, bere idazkera dotorearekin eta kontrabaxuaren ezohiko presentziarekin, Madril bizi izan zen italiar konpositorearen tinbreen sofistikazioa eta finezia melodikoa erakusten ditu. *G. 102 Trioaren Minuetoak*, begirada dotorea eskainiko du, protagonismoa Arriagaren *2. Hari kuartetoa la maiorrean* piezari eman aurretik. Partitura horrek izaera dramatiko harrigarria du, eta nerabea besterik ez den autore baten nagusitasun formala erakusten du. *77. Kintetoa re maiorrean, "Fandango"* boskote ospetsuak itxiko du kontzertua, Espainiako dantzaren kolorearen eta kamera-formaren

fusioaren bidez, *fandango* mugimendu ospetsuak flamenkoaren unibertsoa aurreratzen duten erritmoak, azentzuak eta efektuak dakartza.

La Ritirata, Josetxu Obregón biolontxelista bilbotarrak sortua, interpretazio historikoan espezializatutako *ensemblea* da, Barrokoaren, Klasizismoaren eta lehen Erromantizismoaren errepertorioak berraurkitzea bilatzen duena, biolontxeloaren agertu zenetik interpretazio historiko eta modernoaren arteko lerroa lausotu arte. Bere izena Luigi Boccheriniren *La musica notturna delle strade di Madrid* kintetoaren azken mugimendutik hartu zuen, italiar konpositore ospetsuaren omenez. Hemezortzi urte baino gehiagoko ibilbidea egina duela, eta lau kontinentetan ehunka kontzertu emanda, Madrilgo Erkidegoko Kultura Saria, RNEko Ojo Crítico eta bost GEMA Sari jaso ditu antzinako musikan egindako lanagatik. 2026an Arriaga, Boccherini, Charpentier eta Bach eskainitako programak aurkeztu ditu Arriaga Antzokia, CaixaForum, BBVA Fundazioa edo Madrilgo Arte Sakratuaren Nazioarteko Jaialdian, esaterako.

Cuarteto Quiroga – Abuztuak 24, 20:30

Hamabostaldiaren azken edizioetan ohikoa izan den beste talde batek, Cuarteto Quiroga laukoteak, emango dio amaiera zikloari, proposamen bitxi batekin: 200 urteko zubi bat eraikiko dute, Juan Crisostomo Arriaga eta György Kurtág artisten artean, eta bilbotarraren gaztaroko jainuaren eta joan den otsailean 100 urte bete zituen hungariarraren begiradaren artean. Arriagaren *1. Kuartettoa re minorrean* partiturak hamasei urte eskaseko konpositore baten heldutasun harrigarria erakusten du, grina dramatikoarekin, lirismoarekin eta bere azentu propioz iragazitako Vienako klasizismoaren arrasto nabarmenarekin; 3. Kuartettoa *mi bemol maiorrean* piezak, berriz, musika argitsuagoa eta hedakorragoa proposatzen du; Erromantizismoa seinalatzen duen talentu baten nortasuna azpimarratzen du biziki. Bi kuartetoen artean, Kurtagek *Aus der Ferne III* eta *Secreta* obretan begirada zatikatu eta intimoa erakusten du, distiraz, isilunez eta mugan kontzentratutako adierazkortasunez egina.

2018ko Musika Sari Nazionala, **Cuarteto Quiroga** laukoteak Manuel Quiroga biolinista galziarrari omenaldia egiten dio bere izenarekin. Cerralbo Museoa Fundazioan egoiliarra den laukotea Errege Jauregiko Stradivarius Bildumaren Palatinoaren arduraduna izan da. Nazioarteko lehiaketa ospetsuenetan saritua (Bordele, Paolo Borciani, Geneva, Pekin, Paris, etab.), RNEko Ojo Crítico saria eta Bartzelonako Palauko Urrezko Domina jaso ditu eta ohikoa da munduko agertoki garrantzitsuenetan; bere kolaboratzaileen artean daude, besteak beste, M. Argerich, V. Hagen, V. Erben, J. Widmann edo J. Perianes. Cobra eta Harmonia Mundirekin grabatutako diskografia handituz doa eta, txalotu ez bakarrik, saritu ere egin du nazioarteko kritikak. Bere kontzertuak Europa eta Amerikako irati-kate garrantzitsuenek grabatu eta ematen dituzte. Sorkuntza garaikideari oso lotua, Peter Eötvös, Cristóbal Halffter, J.M. Sánchez Verdú eta abarren lanak estreinatu dituzte.